

Leturiaren egunkari ezkutua: 50 urte

LEIHATILA

JOSE LUIS ALVAREZ
ENPARANTZA 'TXILLARDEGI'
1034216A

Nire *Leturia* nobelaren L. urtemuga datorren urtean beteko dela-ta, edonori eskaini ohi ez zaion aukera eskaini dit niri patua.

Alegia, Ferrolen izan naiz berriro Uztaile honetan, eta neure nobela (*nivola?*) prestatzerakoan bistatzen nituen parajeak berrikiusi ditut. 50 urte beranduago.

Oso esperientzia harrigarria izan da. Eta gaur ematen dudana lekukotza hau idazketaren alorrean ari diren lumakideei agian interesgarri gerta dakiekeen esperantzan burutzen dut.

Urtzi Urrutikoetxeak jarri dit *puntua* azkeneko *Kalegats*-ean (2006ko Ekaina, 8. alea, 8-9 orr.), eta besteren batek ere bai.

—*Leturia* argitara zenez geroztik 50 urte direla bide. zein da gaur ikusten duzun egoera?

Eta antzeko galderak egin dizkidate aste hauetan.

Eta *saudade*-ak jota, nonbait, Galizara, eta Ferrola bereziki, jauzi bat egitea erabaki dut.

Orain dela 25 bat urte Paco Rodríguez BNGKO diputatuaren etxera egindako bidaiak kanpo, ez bainintzen Ferrolen berriro izan. Pacok itsasertzean dauka jaiotetxea Ferrolgo atztoa den Serantesen, Santurtziakoaz gain beste Serantes hura bai-baitago!

Inginaritzia ikasketak Bilbon 1956ko Martxoan amaituta, ezagutzen ez nuen Ferrol del Caudillo-ra abiatu nintzen. *Alferez de Complemento* gisa eman behar bainintuen derrigorrezko sei hilabeteak: 1956ko Maiatzetik Azarora arte.

Makina bat aldiz kondatu dudana berriro errepikatuz, *Leturiaren* sorrera azaldu diot Urtziri. Knut Hamsun norvegiar Nobela Saridunaren *Pan* nobela zoragarria euskaratzeko asmoa azaldu niola Koldo Mitxelena. Eta honek ezetz, eta neure kaskotik asmatutako bat idatzi behar nuela erantzun zidala.

Mitxelena berak idatzi zuen *Leturia*-ren Hitzaurrea 1957an, hain zuzen.

Oraindik Euskara Baturik ez baitzegoen (oinarriak 1964an Baionan eta 1968an Arantzazun ipini zirenez), gipuzkeraz idatzi nuela. Eta liburuak baduela alde horretatik (eta bestetatik ere bai, egia aitortzeko) halako umoto gabeko eta gordin kutsua.

Ondoko urteetan, eta 1977tik aurrera, behin eta berriz argitaratu da *Leturia*, kopuru txikitan.

Zenbait aldiz 1956ko grafia berean agertu da, facsimilez nolabait. Orain-ek, adibidez, Inaki Urdaniabiaren aurkezpen mamitsu batez.

Beste zenbait aldiz, berriz, Euskara Batuari egokitua; Elkar-ek egindako argitarapenetan bezala. Aldaketa askorekin, beraz. Adibidez:

1956: *udalen* / 1977: *udalehen*
1956: *emen* / 1977: *hemen*
1956: *bañan* / 1977: *baina*
1956: *orregatik* / 1977: *horregatik*

1956: *asieran* / 1977: *hasieran*
Zehatza izan nahi duenak, xehetasun hauek kontutan hartu beharko ditu

Garai hartan Literatura dextente irakurtzen nuen; baina Mitxelena enbidea bota arte ez zitzaidan burutik pasa ere egin halako batez (are zazpi aldiz ere) nik nobelarik idatziko nuenik.

Baina bego hori horretan. Idatzi egin nuen *Leturia* sei hilabeteen, baterian, mendian, libre neuzkan egunak baiatuz. Bi aste ematen bainuen Ferrolen, eta bat baterian.

1956 urtea oso urte garrantzitsua izan zen. Bai mundu mailan (Budapest, Suez), bai Euskal Herriarenean (Arantzazuko lehendabiziko bilera euskararen inguruan); eta Parisiko Congreso Mundial delakoa, euskal politikaren kinkaldi izkutagaitzaz.

Ferroldik ezin mogiturik, biok galdutak.

Arantzazuko bilerara, Alfonso Irigoienen bitartez, Ferrolen prestatutako Karta idigia bidali nuen.

Pariskora, berriz, J.M. Benito del Valle eta J.M. Agirrek eraman zuten Ekin taldearen iritzia.

Camus-en eraginez (*La Peste* batez ere), eta formaren aldetik, nobela simboliko bat idazten salatu nintzen. Miren ez da Miren, gudan absolutu bihurtzen den edozer baikiz (emakumea, ideologia, helburu); eta Joseba, berriz, egunkariaren idazlea, «ene anaia bizkia».

Eta, mamiaren aldetik, erabat filosofikoa: hautatu aurreko ezin

egonari, hautatu ondoko etsipena darraikio.

Joseba kristaua da. Baina existentzialismoak jota (Unamunok zehazkiago). Hil beharrak astinduta, barne garrasi metafisikoz oratua da testua. Eta gaurko gazte hedonista batek (eta gaurko gazte guztiak ez dira hedonista) liburuaz eta nitaz pentsa dezakeena somatu este dut.

Giza patua ez da 50 urte honetan aldatu. Baina modak eta moduak bai.

Eta *Larrin*-en Koldo Izagirrek eskainitako iruzkinak irakurritia, apalatsun osoa dagokit. Onar bedi nire lekukotza.

Nola topatu dudana Ferrol?

Hara joan nintzenean, ezkongai, 26 urte, biziera aurretik begiratu nuen. Egun hauetan itzuli naizenean, aldiz, biziera atzean uzten ari dakusat.

Joaten nintzen kaserna eta ofizialen etxetxoak berrikusi ditut. Itxura berberean topatu ditut. Eta handik gurtzatu dudana ferroldar paseari batek hori segurtatu dit: hura ez da batere aldatu.

Bizi izan nintzen etxea ere (Igrexa 32, 1.) bere hartan dago. Izena aldatu diote kaleari, 1956an Calvo Sotelo kalea baitzen. Etxe hartan zitenez, Franco-tarren familia errepublikazalea zen (Francisco eta Nicolas anaiek salbu), eta ferroldarrek ez zuten diktadorea batere maite.

Ez dut Cabo Prior, Valdoño eta San Xorxe da Mariñaraino igotzerik izan. Ospakizunetan ni nintzen ingurutako agintari gorenak!

Hain zuzen, baterian nengoenean, soldaduek bazkaria nik dasta nezan ekartzan zidaten egunerok (Armadaen ohikoa bide denez), baiezkoa nik eman niezaie.

Galiziar peto-petoak ziren nigana etortzen ziren mutil haiek. Erosi dudun *Voz* Hitzegi bikoitzean (*Galego esencial*, 850 orrialde), esp. *alá, gal. alá, aló* itzultzen da. Besterik ez. Baina baterian hurbiltzen zitzaizkidan soldaduek *aculá* esaten zuten beti (cast. ant. *acullá*, port. *acólá*). Eta xehetasun txiki honek ongi erakusten du 50 urte honetan *castropo*-ak izan duen hazkundera.

Leturia-ren kapituluak pentsatzeraz joaten nintzen parkea (idatzi baterian idazten nituen) berdin-berdin dago: urmaela, galiziar famatuaren harrizko imajinak, dantzalekua. Zuhaitzak sendoago. Eta izena aldatua: orain Parque Reina Sofia deritzo.

Kubia-raino zihon tranbia aspaldisko desagertu omen da.

Plaza Nagusian zegoen Franco-ren estatua, beraz zaldi gainean, eta tamainaz eskerge, kendu egin dute orain dela urte batzuk.

Eta Tejero koronelak ongi ezagutu duen La Palma Gaztelu txundigarria, hantxe dago, riaz bestaldean, Mugaros eta itsasoaren artean.

Parkearen ondo-ondoan dagoen Mesón Xabier delakoan bazkaldu dugu (emazteak eta biok, alegia). Eta *Leturia* idazten nuenean bezala, lanpernak eta ribeiro eskatu ditugu (*en taza* hartu nahi izan dut, 1956an bezala; baina katilu txiki berezi hauek ez omen dira gaur jatekxetan erabiltzen). Lanpernak, aldiz, orduan bezain gustagarri daude.

Real kalean barrena ibili naiz. Gure begiradak 1956an erakartzan zituzten neska ezin ederragoak desagerturik. Amona bat pasa da ene aurretik, bere bilobarekin hizketan ari...

Leturia-ren garaiko lekuak arrabistatu egin nahi izan ditut.

Pontedeume itsas usain sarkorrez blaiturik aurkitu dut. Era jendetza gaitza herriko kaleetan, azoka eguna zelako. Eumeren ibai eriza txirlaz beterik zegoen, eta os *rapaces* treneko zubitik egiten zuten jauzi ibaira. Antxetek, berriz, Donostian baino azkarkiago egiten bide dute han urubi.

1956ko egonaldian maiz bisitatu nuen Cabanasko hondartza xarmenta, berriz, berdin dago.

Betanos ere bisitatu dut. Ahaztua neukan erabat. Orain International Festival of Cinema dela-ta, benetan ikusgarri eta atsegin.

Eta A Coruña ere azaldu naiz. Besteak beste oroitzen bixia ekarri nuen *Leturia*-ren garaiaz geroztik. Hantxe ikusi bainuen Profesor Alba famatua. Harro-harro joan ginan alferez batzuk, uzkur, ia-ia darra jotzeko asmotan. Albak, hala ere, multzo-hipnosi erakusgarri galanta eskaini zuen. Eta hartaz zipitzik sinesten ez zutenak berak barregarri ikusi genituen antzokiko tauladon, hipnosiak erabat hartuta, galtzontzilatanditarte jendearen aurrean erantzirik.

Hiruzpalau aldiz egondako Padrón-era joaterik ez dut izan aurtengoan. Eta Rosalia de Castro-ren untz etxe balkoidun hungikiarra gozatzeko aukera ez dut izan. Hurrengo batez, agian. Baina *Follas Novas* berrerosi dut.

Askotan esan dut Galiza dela ene bigarren aberria.

Ongi dakit *Leturia* idatzi nuenez geroztik.

Korrontzi taldeak Navelgas-Tineoko lehiaketa irabazi du

MUSIKA • Folk talde berrientzako udako hiru lehiaketatan, oso leku onak lortu ditu Korrontzi talde bikaitarrak. Ortigueirako (Galizia) jaialdian laugarren geratu zen, Malagako (Espainia) Eurofolk jaialdian bigarren, eta Navelgas-Tineoko (Espainia) Cuarto de los Valles lehiaketan irabazlea izan da Korrontzi.

'Hermes' aldizkariak liburu argitaratu du Ismael Manterolak

ARTEA • Ismael Manterola Espizua arte historialari eta BERRIako arte kritikariaren *Hermes y los pintores vascos de su tiempo* (Hermes eta garaiko euskal pintoreak) liburu eman berri du argitara Bizkaiko Foru Aldundiak, egilearen doktore tesian oinarritua. Liburuak 1917 eta 1922 bitartean *Hermes* kultura aldizkariarekin elkarlanean aritu ziren euskal pintoreen lekukotasuna jasotzen du.

Roberto Bolañoren hil osteko bi obra argitaratuko dituzte

LITERATURA • Alfaguara argitaletxe-ko editore nagusi Jorge Herraldek adierazi du urtarrian Roberto Bolaño idazlearen *hilondoko* bi liburukaleratuko direla: *El secreto del mal* ipuin bilduma eta *La universidad desconocida* poema narrratibo sorta.

Fritz Lang zuzendaria omenduko du Hollywoodek

ZINEMA • Bere heriotzaren 30. urteurrenean, Hollywoodeko industriari Fritz Lang zinema zuzendaria omertzeko hainbat ekimen antolatuta ditu. Esate baterako, Langen filmak DVD euskarrian kaleratuko dituzte. Lehena *Dr. Mabuse: der spieler* izango da.

Woody Allen hurrengo lana filmatzen hasi da, Londresen

ZINEMA • Woody Allen zinemagilea bere hurrengo lana filmatzen hasi da. Londresen, aurreko biak (*Match Point*, 2005ean eta *Scoop*, 2006an) filmatu zituen hiri berean. Oraindik ez da jakinarazi zehazteko den filmaren izenburua, baina bai Colin Farrell eta Ewan McGregor izango direla aktore nagusiak.



Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* nobelaren hiru argitalpen. H. 402